

Bosgarren mailako 130 ikasle loreak jartzen ari dira Hernaniko jardinetan

■ Langile, Urumea, Elizatxo eta Inmaculadako ikasleak dira ■ Jardinak zaintzeko panelak ere jartzekoak dituzte.

HERNANIKO jardinak bolada honetan hornitzen dituzte lorez. Zenbait lekutan: Atarrabiyo parkean, Oarson, Txirritan, Elkanon... ikastetxe-tako umeak ari dira loreak jartzen, eta loreez gain jardinak zaintzeko eskatzen duten kartelak ere preparatuak dituzte. Umeek *landareria* gaia ikasten dute 5garren mailan eta horrekin lotuta loreak jartzeko plana ere bultzatu dute ikastetxeek eta Udalak, Ingurumen Hezkuntza Programaren bidez. Aurten, *pentsemenduak* ari dira aldatzen.

Helburu bat baino gehiago ditu proiektu honek, baina, nagusiena umeak kontzientziaztea da. Umeek berak jarritako lore eta kartelak badaude, jardinak buru belarri zaintzen omen dituzte eta arreta gehiago jarri ere bai ingurumenari.

6.000 lore

Bolada honetan umeak ere ari dira laguntzen, baina, jardinak urte guztian zaintzen dira.



Urumea ikastetxeko ikasleak eta Udaleko langilea Oarson loreak aldatzen.

Manu Iradi Udal jardineritzako arduradunak Kronikari esan dionez, orain, udazken inguruan, 6.000 lore aldatzen dira Hernanin, eta udaberri inguruan beste 6.000. Horrez gain, belarra, arbusto eta abarrei 7 korte ematen zaizkie

urtean, eta Hernanin badira jardinak 18 korte ematen zaizkienak ere. Guzti hau mantenimenduari dagokiona, baina, obra bat egiten denean edo ingurune bat berritu, jardinak jarri ohi dira inguruan eta zenbait jardin goitik

behera berritu ere egiten dira. Orain dauden proiektuetako zenbait dira, Goiz Eguzkiko goiko jardina guztiz berritzea, Balantxatik apeaderora bidean arbustoa jartzea edo Pana parke gaikaldean eskailera eta jardina jartzea. □

Errepresioak hildakoak gogoratzeko ekitaldiak

GAUR egun osoan ekitaldiak izango dira herrian, errepresioak hildako hernaniarrak gogoratzeko. Goizean, 10:30etan eta 12:00etan hernaniar haien oroigarri jarritako monolitoak bisitatu eta lore eskaintzak izango dira. Arratsaldeko 14:00etan bazkaria izango da Larrainen, eta 20:00etan berri, ekitaldi nagusia kiroldegian. □

■ FUTBOLA

Hernani-Hondarribia gaur, Urnietan

HERNANIK gaur jokatu du ligako 15garren partidua eta sailkapenean postu bat behintzat igotzeko aukera du. Zuriberdeek Hondarribiaren kontra jokatu dute. Hondarribia 16garren dioa, eta Hernani baino postu bat aurrerago, puntu bat gehiagorekin. Hernanik aurreko astean 0-4 irabazteaz gain, oso partidu ona egin zuen eta susperraldiari eustera joango da Urnietara (Zubipe hondatuta dago oraindik aurreko astean ura sartu zelako). Partidua arratsaldeko 17:00etan izango da. □

OSIÑAGA AUZOA

Auzoak igandean kobratuko du kuota

OSIÑAGAKO auzo elkarteak abenduan kobratzen du urteko kuota eta igande honetan pasako da etxez etxe. Kuota 10 euro da eta euro bateko partizipazioa sartua dago Gabonetako loterian. Auzo elkarteak adierazi du, igande goizean etxean izateko modurik ez duenak ahal dela kuotaren dirua bizilagunari uzteko.

Mus txapelketa 22an

Bestalde, auzoak jakin arazi du Osiñagako mus txapelketa abenduaren 22an egingo dela, Erorrabi sagardotegian. Izena ematea 10 euro dira bikoteko, eta saria bi txerrikume. □



Gure Txoko elkarteko lau musulariak osteguneko finalean.

ELKARTE ARTEKO MUS TXAPELKETA

Aranal eta Higuero txapeldun, Gure Txokoko 'derby' estuan

OSTEGUNEAN jokatu zen Santa Barbara elkarte-an Soziedade arteko mus txapelketako finala: Patxi Castrillo eta Benito Paredes, Jose Mari Aranal eta Valentin Higueroen kontra. Aurten aurreneko aldiz, bi finalistak soziedade berekoak dira, eta bide batez esanda, Hernaniko soziedade txikieneko bi bikote. Paredes eta Castrillo errez hasi ziren irabazten eta denbora gutxian 3-1 jarri ziren aurretik. Higuero eta Aranalek, ordea, ez zuten etsi eta 3-3 jarri ziren. Azken partidua latza izan zen: 13na, 18-19, 27-28 Castrillo-Paredes aurretik, eta azken jokoa: Higuera ordago haundira, bi erregerekin; besteak sartu, eta galdu. Sari banaketa afaria gaur egingo da Santa Barbaran eta 60 lagun inguru bilduko dira. □

Antziola-Motor
SALMENTA ETA TAILER ZERBITZUA

18 urte Hernanin, zuekin
Ford-eko gama guztiarekin

Modelo guztiak
zure eskura

ANTZIOLA AUZOA 12 - Hernani - Tfnoa. 943 55 57 72
Ordutegia: Asteazkera 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

Xarobe
DELICATESSEN
SINCE 1983

Produktu Bereziak

Nagusia 17 • 20120 HERNANI
© 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

Ezkontza erreportaiak
Famili erretratuak
Haurrak
Jaunartzeak
Publizitatea
Moda

marisol eta amaia
azul
photo studio

Txalaka pas. 18 - 11b Ergobia
943 33 18 47
(659 97 29 93 - 607 35 71 80)

Epeleko Etxeberrin hotela jartzeko normak aldatzea onartu du Hirigintza Batzordeak

■ Diputazioak onartu behar du orain erabakia ■ Kanposantua haunditzeko terreneen jabeekin lotu beharreko hitzarmena ere onartu zen osteguneko Batzordean.

OSTEGUNEAN bildu zen Hirigintza Batzordea Udaltxean. Onartu zuten puntuetako bat da Epeleko Etxeberrin hotela eta jatetxea egiteko norma subsidiarioak aldatzea. Azken erabakia Diputazioak du orain, eta sei hilabeteko epean eman behar du erantzuna. Ondoren aurkeztu beharko dute hotela eta jatetxea egiteko proiektua Udaltxean.



Epeleko Etxeberrin.

Kanposantua haunditu eta Paradorea kontserbatu
Kanposantua haunditzeko proiektua dago Udaltxean. Terrenoak Udalaren esku jarriko dituen hitzarmena onartu du Hirigintza Batzordeak. Beste

puntuetako bat San Antonio Paradorea nola bota erabakitzeko estudio bat eskatzea zen. Paradorea bota egin behar dela jakinekoa da, baina, Udalak sarrera bere horre-

tan gorde nahi du, eta fatxadako hainbat zati ere bai, "patrimonio historikoa direlako". Estudio bat aginduko du nola bota eta zer gorde erabakitzeko. □

'Hernasax' musika taldeak kontzertua bihar

HERNASAX taldea Musika Eskolako talde bat da eta igandean kontzertua emango dute Udaltxeko arkupetan.

Taldea saxofilariek osatzen dute eta mota guztietako musika jotzen dute. Igandeko kontzertuan musika klasikoak

joko dute: Bach, Debussy, Haydn eta beste konpositoren batzuren obrak. Kontzertua eguerdiko 13:00etan da.

KIROLA				ASTEBURUKO PARTIDUAK			
FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Taldeak	Non	Noiz
Gorengoak	Hernani-Hondarribia	Urnieta	Gaur 17:30	Gipuzkoako Txapelketa			
Emak. Liga	Hernani-Tolosa	Matigoxot.	Gaur 15:30	Paleta	Kuku/Manzidor-Martinez	Anoeta	Jokatua
1. Errejon	Intxaurrondo-Hernani	Matigoxot.	Gaur 17:15	Paleta jub	Ramuntxo/Burutaran-Valero	Hondarrib	Gaur 15:30
Gazt. Nazi.	Hernani-Romo	Matigoxot.	Bihar 17:00	Jubenilak	Otegi-Zurutza/Mundarro	Kirol.	Gaur 11:00
Gazt. Ohor.	Amaika bat-Hernani	Deba	Gaur 11:00	Jubenilak	Ezeiza-Gorrotategi/Zazpiterri	Kirol.	Gaur 11:00
Kad. Ohore.	Zumaia-Hernani	Zumaia	Bihar 11:45	Kadeteak	Fernandez-Ojuel/Txapagain	Kirol.	Gaur 11:00
Kad. 2. Mai	Atsedendia			Kadeteak	Beharzan/Artola-Barrantes	Amasa	Jokatua
Inf. Ohore	Hernani-Real Union	Matigoxot.	Gaur 15:30	Kadeteak	Goierri/Ramos-Huizi	Urretxu	Gaur 12:00
ERRUGBIA				Afizionatu	Alvarez-San Sebastian/Bergara	Kirol.	Gaur 11:00
1. Nazional	Ordizia-Hernani	Ordizia	Bihar 12:00	Afizionatu	Zarautz/Aitor Sarasua	Zarautz	Gaur 17:00
Euskal liga	Hernani-Durango B	Zarautz	Gaur 15:45	Pala motza	Kuku/Ubarretxena-Galarza	Ikaztegi	Jokatua
Jub. Eusk.	Hernani-Ordizia	Zarautz	Gaur 14:30	Infantilak	Hondarribia/Ezeizall-Garmendia	Hondarrib	Gaur 15:30
Aleb. Gipuz	Lau talde	Anoeta	Bihar 10:30	Infantilak	Ramuntxo/Fernandez II-Aizpitarte	Hondarrib	Gaur 15:30
WATERPOLOA				Kronika	Zabala-Garmendia/Tutu-Iñaki	Tilosean	Gaur 16:00
Mut. Euskal	Deskantsua			Kronika	Urtzi-Ugaitz/Huizi-Villar	Tilosean	Gaur 16:00
Mut. Euskal	Fadura-Hernani B	Getxon	Gaur 20:30	Kronika	Txutxi-Koldo/Urtzi-Quijera	Tilosean	Gaur 16:00
Nes. Euskal	Deskantsua			Kronika	Legarreta-Ezeizal/Pablo-Fernando	Tilosean	Gaur 16:00
BOLEBOLA				Erremontea	Iribarren-Etxebarria/Matxin-Aizpuru	Galarreta	Gaur 16:00
Jubenilak	Lizeo S Tom-Hernani	Donostia	Gaur 16:00	Erremontea	Altuna-Eizagirre/Zeberio-Aizpuru	Galarreta	Gaur 16:00
Kadeteak	Larramendi-Langile	Andoain	Gaur 11:00	Erremontea	Iñigo-Lekunberri/Kalonge-Etxabe	Galarreta	Gaur 16:00
Alebinak	Andoain-Elizatxo	Andoain	Gaur 12:00	Erremontea	Sarasua-Urko/Agirresarobe-Badiola	Galarreta	Gaur 16:00
Alebinak	S. Patricio-Urumea	Pio Baroja	Gaur 11:15	XAKEA			
				2. Gipuzkoa	Hernani A-Añorga B	Grosen	Gaur 16:00
				2. Gipuzkoa	Hernani B-Fomento B	Errenteria	Gaur 16:00

TXIMELETA OPARIAK
Txirrita 10
943 55 23 95
HERNANI

ZABALEGUTIA
JOSTUNDEGIA
Likidazioan, berritze lanegatik
Izpizua 17 - Tel. 943 55 29 47 - 20120 HERNANI

Telemar
ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, ☎ 943 33 26 00
CD eskeintza berezia:
10 CD + 1: 6 eurotan.
EMTEC
CD-R HIGH PERFORMANCE
WEB ASSISTANCE
ALCATEL
NOKIA
CONNECTING PEOPLE
ALCATEL 311: 62,00 euro alta
NOKIA 3410: 106 euro

MoviStar Activa
Mobiletan eskainitza:
Kontratua hileroko kuotarik gabe.
MOVISTAR PLUS
ALCATEL
NOKIA
CONNECTING PEOPLE
ALCATEL 311: 62,00 euro alta
NOKIA 3410: 106 euro

Asun Esnal
Bitxigintza
Bixien konponketan egiten ditugu
Larramendi 3
HERNANI 20120
Tifa. 943-33 04 78

HITZ BITAN.

✓ BERTSOLARITZA

Umeak txoratzen ostegunean bertso eta marrazkiekin. Gozatu ederra hartu zuten ostegunean Biterira inguratuko gazteek bertso-marraztuekin. Bertso Latako lehen saioa izan zen atzokoa eta oraindik izango da bertsoekin non gozatua hilaren 22tik aurrera.

✓ KARABEL AUZOA

Mus eta tute txapelketa asteburuan. Belkara auzo elkarteak antolatuta, gaur eta bihar mus eta tute txapelketak jokatuko dira auzo elkarteetako lokalean. Partidak arratsaldeko 15:30etatik aurrera jokatuko dira eta sari banaketa igandean izango da 18:30ak aldera.

✓ ARROSA IRRATI ZENTRUA

Gaur inauguratuko da Arrosa Zentrua. Euskal Herriko 25 irrati inguru bilduko dituen Arrosa Irrati Zentrua gaur inauguratuko da Martin Ugalde Kultur parkean. Molotoff Irratia ere sare horretan sartua dago. Inaugurazioa gaur 11:30etan izango da.

✓ KIROLDEGIA

Ur-ludoteka bihar piszinaan. Igandean 10:30etatik 12:30etara ur ludoteka izango da kiroldegiko piszinaan. □

LEHENENGO URTEURRENA
Manuel Artola Irikoste
2001eko abenduaren 16an hil zen 62 urte zituela.
Nahiz eta gure artetik urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzetan, zure aurpegiko irrifarra gogoan dugula.
Zure anai-arrebak eta ilobak.
Urtebetetzeko Meza nagusia, **bihar igandea, abenduak 15**, goizeko 10:30etan, Ereñotzuko San Antonio parrokiari.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
<ul style="list-style-type: none"> ☎ Taxiak: 943 550093 ☎ Udaltzaingoa: 943 333288 ☎ DYA: 943 464622 ☎ Autobusak: 943 556662 ☎ Anbulatorioa: 943 006666 ☎ Jokalari anonimoak: 943 331103 	<ul style="list-style-type: none"> ☎ Eguez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793 ☎ Gaez: Gorospe Andoain. Rikardo Arregi 12 ☎ 943 592415

OIALUME BILTOKIA.
Igande eta jai egunetan dantzaldia, 19:30etatik aurrera.
Bihar igandea: Drindots
OIALUME BILTOKIA
Oialume auzoa - 943 55 29 38

IKERKETA BEKA
"Emakumeek Hernaniko historiari egindako ekarpena"
Proiektua 2003ko otsaila eta azaroa bitartean landuko da.
Saria: 6.000 euro.
Proiektuak aurkezteko epea: **2002ko abenduaren 20a**

LOGOTIPO LEHIAKETA
"Berdintasun Kontseiluaren Logoa"
Saria: 600 euro - Aurkezteko epea: 2003-01-10

Oinarriak eta informazioa:
Ongintza Patronatuko Berdintasun Saila
Karobieta 63 - Hernani - Tel.:943 55 78 54

OKINDEGIA
ANTZIOLA
Betiko lekuan gaude, eguneroko ogirik onena banatzen!
ANTZIOLA 3 - Tel. 943 55 17 91

ANTZIOLA KAFETEGIA
Ogia, pastelak, gozokiak, kafea, refreskoak, ...
Bi ordenagailu, jendearen erabilerarako.
Erakusketak.
MONTEBIDEO, 3 behea